



Heteropterus

N° 27 Zkia. - Marzo 2012 Martxo

ISSN: 1576-1819

En un gran lago de Bélgica
se vio una bandada de libélulas
que abarcaba una extensión de 170
kilómetros cuadrados.



En su paso por Pónticores
la nube de insectos


interrumpió el tráfico durante
horas.



Goliath
kakalardoak
100 gr pisa
ditzake.



Oryctes nasicornis
kakalardo errinozeroak
ordubetez eduki dezake,
sorbalda gainea,
duen pisua halako 30.



El didgeridoo es una larga flauta
utilizada por los aborígenes australianos.

Para construirla entierran un tronco de
eucalipto en un nido de termitas, las
cuales roen la madera blanda del interior
dejando un agujero en el centro.

Luego no queda más que decorarlo.

Los didgeridoo vaciados a mano no tienen
la calidad de sonido de los fabricados
por las termitas.



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito
legal:
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea /
Comité de redacción:
Pedro Ayerbe
Eli Insausti
Mónica Menéndez
Miriam Moreno
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

Azalaren diseinua / Diseño de
la portada:
Faustino Uranga

Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:
Acherontia atropos (Linnaeus, 1758)
LEPIDOPTERA: SPHINGIDAE
Imanol Zabalegui

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS
Lgoitza soziala / Sede social:
Oiarzun (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bidali
behar dira / Toda la correspon-
dencia debe enviarse a:



HETEROPTERUS
Apdo. 193 P.K.
20120 Hernani (Gipuzkoa)



www.heteropterus.org
heteropterus@heteropterus.org

Nº 27 Zkia. • Marzo 2012 Martxo

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – ÍNDICE

Orr. / Pág.

Editoriala / Editorial	4
Elkarrizketa / Entrevista	5-8
Miriam Moreno	
Dr. Jordi Ribes Rius Doktorea	9
Ikastaroak eta Jarduerak / Cursos y Actividades	10
Argazki erakusketa Orion / Exposición de fotografías en Orio	11
Elkarteko informazioa / Información de la Asociación	12
Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa ...	13-16
Artropodoak eta posta-seiluak (III) / Los Artrópodos y los sellos de correos (III)	17
Jorge Luis Agoiz Bustamante	
Esoporen Fabula batzuk / Algunas Fábulas de Esopo	18-19
Intsektuak musikan / Los insectos en la música ...	20-23
Faustino Uranga	
Hemeroteka	24-25
Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos	26
Faustino Uranga	



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Udalaren laguntzarekin

Con la colaboración del
Ayuntamiento de Oiarzun

www.heteropterus.org

EDITORIALA - EDITORIAL



Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....

Helbidea / Dirección.....

Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 25 euro urteko / anuales (2012)

Bazkide gaztea / Socio juvenil: 20 euro urteko / anuales (2012)

(Para el extranjero 5 euros más / Atzerrirako 5 euro gehiago)

“HETEROPTERUS”

Gipuzkoako Entomologia Elkarte -

Asociación Gipuzkoana de Entomología

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

💻 www.heteropterus.org

heteropterus@heteropterus.org

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak.
Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

ELKARRIZKETA - ENTREVISTA

Egilea / Entrevistadora:
Miriam Moreno

JOXAN ALBISU EZENARRO:

ENTOMOLOGOA ETA "ARRANO ETXEA" DONOSTIAKO ANIMALIA BASATIEN ATERPEKO ZUZENDARIA

ENTOMÓLOGO Y DIRECTOR DEL CENTRO DE RECUPERACIÓN DE FAUNA SILVESTRE DONOSTIARRA "ARRANO ETXEA"

"INTSEKTUEI ESKER EZAGUTU NUEN ROCKEFELLER"

"CONOCÍ A ROCKEFELLER GRACIAS A LOS INSECTOS"

Joxan eta Mertxe oso bikote atseгина da, bizitza besteei laguntzen ematen duten horietakoa. Beraien aterpea Igeldon kokatua dago, itsasoari begira, hain zuzen ere. Jasotako hainbat eta hainbat animalia dituzte bertan lagun gisa. "Arrano Etxea"tik laguntza behar duten hamaika animalia igarotzen dira (hegoak hautsitako harrapakariak...) baina tamalez, gero eta gehiago dira egoera txarrean iristen diren espezie exotikoak; esaterako lumarik gabeko loroak, gehiegi hazi eta pisu batean eduki ezin diren dortokak edota neurri handia hartu dutenez, beraien jabe ahalkabeei lehen adina kilika egiten ez dieten bi suge.

Gu iritsi ginenean, Joxan Albisu eta bere



Joxan y Mertxe son una pareja realmente simpática. De esas personas que pasan por la vida sembrando y recogiendo. Su refugio está en Igeldo, cara al mar. Y su compañía son innumerables animales de acogida. Por su "Arrano Etxea" pasan multitud de animales que requieren de su ayuda (rapaces con alas rotas...) pero cada vez son más las especies exóticas que llegan a sus manos en malas condiciones: loros sin plumaje, tortugas que han crecido demasiado y ya no se pueden tener en un piso, e incluso un par de serpientes que han alcanzado un considerable tamaño y ya no hacen tanta gracia a sus desahisados dueños.



Joxan Albisu y su mujer, Mertxe García, nos reciben mientras fotografian las cajas en las que han muerto asfixiados 3 de los cuatro monos titi que viajaban ilegalmente desde su país de origen. Estos pequeños mamíferos, no más grandes que una mano, suponen un sabroso negocio para los que se dedican al tráfico de especies exóticas. Lo triste son las condiciones en las que viajan. En esta ocasión son peceras de plástico de dimensiones ridículas.

emaztea, Mertxe García, kutxatxo batzuei argazkiak ateratzen ari ziren. Azaldu zigutenez, kutxa haietan beraien jaioterritik ilegalki ateratako lau titi tximino zetozen, horietatik hiru hil egin ziren egoera txarra zela medio. Negozio mamitsua da espezie exotikoen trafikatzailentzat, esku bat baino handiagoak ez diren ugaztun txiki hauek saltzea. Errukarria da, ordea, ikustea zer egoeratan egiten duten joan-etorria animaliatxo hauek. Oraingoan, plastikozko arrain-ontzi txiki eta kaxkar batzuetan sartuta etorri ziren.

Joxan Albisu, pediatra de profesión, es un gran aficionado a la entomología desde la infancia. *"Me han contado que cuando tenía 7 años, al llegar a casa, me ponían boca abajo para que cayeran todos los bichos que llevaba en los bolsillos"*, relata. Esta afición le ha repercutido muchas gratificaciones y no pocas sorpresas. La última y quizás más sorprendente su reciente amistad con el magnate David Rockefeller, gran aficionado como él dice *"a esto de los bichos"*.

Joxan Albisu izatez pediatra da, baina txiki txikitatik entomologia asko gustatu izan zaio. Berak hauxe kontatu digu: *"Kontatu didatenez, 7 urte nituela, etxera iristen nintzenean buruz behera jartzen omen ninduten, poltsikoetan nituen intsektu guztiak eror zitezten"*. Afizio honek poz handiak ekarri dizkio, baita ustekabe batzuk ere. Azkenekoa, eta agian bitxiena, David Rockefeller magnatearekin duela gutxi egin duen adiskidantza, bera ere *"intsektuen oso zalea"* omen da eta.

Al doctor Albisu, como a la mayoría de los

Albisu doktorea, intsektu bilduma duten ia gehienak bezala, bere bildumaren mantentze-lanak kezkatzen zuen. 20.000 ale besterik ez baitzituen, alajaina! Entomologia gustuko duen edozeinek daki neurri horretako bilduma bat edukitzeak suposatzen duen lana eta ardura. Inguruan inork interesik agertzen ez zuenez,



David Rockefellerri eskaintzea erabaki zuen. Dagoeneko, lehen aipatutako bilduma, Harvardko Unibertsitateari atxikita dagoen fundazio batean gordeta dago, Joxan Albisuren izena mantenduz. Bera lasai gelditu da, bai baitaki han behar bezala zaindu eta gordeko dutela.

Historia Mertxe Garciak, sendagile donostiarraren emazteak, bere ohiturari jarraituz *Hola* aldizkaria erosi zuen egun batean hasi zen. Bertan David Rockefeller bankari amerikarrari buruzko erreportaia bat zekarren. Mertxeren atentzioa erakarri zuena zera izan zen, argazkietako batean magnatea koleopteroak zituen kaja batzuekin agertzen zela. "*Hara – esan zion senarrari – Rockefellerrek eta zuk afizio bera duzue!*". Hasierako txantxen ondoren, gutun bat idaztera animatu zuen, zale-tasun bera zutela adierazteko. Hiru helbide lortu zituzten eta gutun bana bidali zuten helbide horietara. Lehenengo bueltan etorri zitzairen, eta handik aste batzuetara, ia gaia ahaztuta zeukatenean, Rockefellerren erantzuna iritsi zitzairen. Joxanen gutuna asko gustatu zitzaion,



berak bezala entomologiarako afizioa zuelako, eta soilik intsektu batzuk aldatzeko aukera eskaintzen ziolako... Nork esan behar zien historia Estatua Batuetara egin-

que poseen una colección de insectos, le preocupaba la conservación de su colección. Nada menos que 20.000 ejemplares. Cualquier aficionado a la entomología sabe la dedicación y el trabajo que supone conservar una colección de estas características. En vista de que aquí nadie mostraba verdadero interés Joxan ofreció su colección a David Rockefeller. A día de hoy esta colección ha entrado a formar parte de una fundación ligada a la amplísima Universidad de Harvard manteniendo el nombre de Joxan Albisu. El está tranquilo porque sabe que allí la sabrán cuidar y disponen de los medios para ello.

La historia comenzó cuando Mertxe García, mujer del médico donostiarra, compró como tenía por costumbre la revista *Hola*. En ella venía un reportaje sobre el banquero americano David Rockefeller. Lo que llamó la atención de Mertxe fue una fotografía en la que el magnate aparecía con unas cajas de coleópteros. "*¡Mira - le dijo a su marido – Rockefeller y tú tenéis la misma afición!*". Tras las primeras bromas le animó a que le escribiera una carta

hablándole de su común afición. Consiguieron tres direcciones y mandaron igual número de cartas. Una a cada dirección. La primera les vino devuelta y, unas cuantas semanas después, cuando ya daban por olvidado el asunto, Rockefeller contestó. Le había gustado mucho la carta de Joxan, un aficionado a la entomología como él, que simplemente le ofrecía la posibilidad de intercambiar algunos ejemplares... Quién iba a decir

que la historia terminaría en un fantástico viaje a Estados Unidos conociendo las mansiones, fincas y colecciones del magnate americano.

dako bidaia izugarri batean bukatuko zela, non magnate amerikarrak dituen luxuxko etxe handi eta dotoreak, lursailak eta bil-dumak ezagutuko zituzten.

Ezinbestekoa da David Rockefeller nola-koa den galdetzea. "95 urte ditu baina oso pertsona gogotsua da", dio Mertxek. "Deigarria da daukan adinarekin duen jakin-mina, bai inguruan dituen gauzetarako, baita ez hain hurbilekoak direnetarako. Egiten duen guztia gartsu egiten duen pertsonaia da". Mertxeren begi bizietan badirudi oraindik dizdira egiten dutela magnatearen bilduma pribatuko koadroek. *Picasso, Monet, Renoir...* kontatzen digu gogo handiz.

Pentsa genezake Rockefellerrek, hainbeste diru izanda, bere eskura iristen den gus-tuko edozein bilduma erosiko duela.

"Ezta pentsatu ere", segurtatzen du Joxanek. "Dituen ia koleoptero guztiak berak lortu ditu. 95 urteko gizon hau, Afrikara egin zuen azken bidaiari, jeepetik jaitsi eta elefante gorotzak miatzen ibili omen zen ia in-tsekturik aurkitzen ote zuen".

Izugarri aberatsa da, bai, esaten digu Mertxek, baina ez du gehiegikeriarik egiten. "Jaten duen guztia biolo-gikoa da eta eguerditan ez zaio inoiz ahazten ardotxo txuri bat hartzea almendra

batzuekin... baina antzematen zaio oso edukazio zorrotzean hazitako pertsona dela eta oso ondo hezitakoa. Oso pertso-na atsegina da eta oraindik ere harrituta gaude egin zigun harreragatik" dio bere lagun amerikarrarekin ateratako argazkiak erakusten dizkigun bitartean.

Inevitable preguntar cómo es personal-mente David Rockefeller. "A sus 95 años sigue siendo una persona llena de vida", comenta Mertxe. "Lo que le caracteriza es su curiosidad por las cosas, sus ganas de seguir descubriendo y conociendo el mundo que le rodea. Es todo un persona-je al que le apasiona todo lo que hace". En los expresivos ojos de Mertxe parecen brillar todavía las pinceladas de los cuadros que pudo contemplar en la colección pri-vada del magnate. *Picasso, Monet, Renoir...* nos relata con entusiasmo.

Puede parecer que ante tal derroche de riqueza Rockefeller simplemente sea un coleccionista adinerado que compra todo lo que cae en sus manos. "Nada más lejos de la realidad", nos asegura Joxan. "La mayor parte de su colección de coleópte-ros los ha conseguido él mismo. En uno de sus últimos viajes a África, el señor, con sus 95 años, se bajó del jeep y se puso a buscar insectos en boñigas de elefante".



Es archimi-lionario, sí, comenta Mertxe, pero no se excede en grandes lujos. "Todo lo que come es biológico y no le puede faltar su vino blanco con unas almendras a me-

diodla... pero se le nota una educación estricta y que es una persona formada en valores. Es sumamente agradable y nos acogió de una manera que todavía hoy nos sorprende" nos cuenta mientras nos enseña las fotos en las que aparecen junto a su amigo americano.

Dr. Jordi Ribes Rius Doktorea

2011ko abenduaren 17an Bartzelonara joan ginen *Heteropterus Revista de Entomología* aldizkariaren 11(2) alea eramatera. Ohore handia izan zen guretzat bai argitaratzaile bezala, baita Gipuzkoako Entomologia Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide bezala, gure lagun eta heteroptelogo handi den Jordi Ribesi argitaratu dugun ale berezi hau eskura ematea bere 80. urtea ospatzeko.

200 orrialde baino gehiago dituen ale honek mundu osoko heteroptelogoek bidali dituzten lanak jasotzen ditu, omenaldi honetan parte hartzeko.

Jordi Ribes Doktoreak, 1961etik 2011ra 175 argitalpen landu ditu, 58 taxoi deskribatu ditu (horietako 51 gaurko egunean onartuak daudenak) eta berari eskaini dizkietenak 36 taxoi izan dira (31 daudelarik gaur egun onartuak).

Informazio gehiago orrialde honetan aurkituko duzue:
www.heteropterus.org

Más información en nuestra web: www.heteropterus.org


El 17 de diciembre de 2011 estuvimos en Barcelona haciendo entrega del volumen 11(2) de *Heteropterus Revista de Entomología*. Fue un honor para nosotros, como editores y miembros de la

Junta Directiva de la Asociación Gipuzkoana de Entomología, entregar en mano a nuestro amigo y gran heteropterólogo catalán Jordi Ribes, el volumen especial por su 80 cumpleaños.

En las más de 200 páginas, heteropterólogos de todo el

mundo han contribuido con artículos para este homenaje.

El Dr. Jordi Ribes ha producido, entre 1961 y 2011, 175 publicaciones, ha descrito 58 taxones (51 de los cuales actualmente válidos) y le han dedicado a él 36 taxones (31 de los cuales actualmente válidos).



IKASTAROAK ETA JARDUERAK / CURSOS Y ACTIVIDADES

2011ko urriaren 14an, Xanti Pagola dokto-reak "Intsektuak, basoetako fauna ezku-tua" izenburua zuen hitzaldi bat eman zuen. Arkamurka Natur Elkartek antola-tu zuen Zarauzko XXXII. Natur Asteko ekitaldietako bat izan zen, hain zuzen ere. Bi ordu entretenitu izan ziren, Xantik irudi asko bota baitzituen emandako azal-penean, eta horien bidez intsektuen mun-dura hurbildu ginen, gure basoetako fauna ezkutura, izenburuak dioen bezala.

El viernes 14 de octubre de 2011, el Dr. Xanti Pagola impartió una conferencia titulada "Intsektuak, basoetako fauna ezkutua". Fue una de las charlas organiza-das por Arkamurka Natur Elkartea, den-tro de la XXXII. Natur Astea de Zarautz. Pasamos dos horas entretenidas con las explicaciones de Xanti, acompañadas de cantidad de imágenes que nos acercaron, como decía el título, a los insectos (esa fauna escondida de nuestros bosques).



Gipuzkoako Entomologia Elkarteko kide den Xanti Pagola Doktoreak, "Especies exóticas invasoras de la CAPV" ikastaroa-ren barruan, "Insectos mediáticos y otros más discretos" izenburudun klase bat eman zuen 2011ko abenduaren 20an.

El 20 de diciembre de 2011, el Dr. Xanti Pagola, que se presentó como miembro de la Asociación Gipuzkoana de Ento-mología, impartió una clase titulada "Insectos mediáticos y otros más discre-tos", dentro del curso "Especies exóticas invasoras de la CAPV".

Derion (Bizkaia) Itsasmendikoik antolatut zuen eta Eusko Jaurlaritzako Inguru-men, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funttsaren laguntza izan zuen.

Organizado en Derio (Bizkaia) por Itsasmendikoi, contaba con la colabora-ción del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural de la Unión Europea.

ARGAZKI ERAKUSKETA ORION

EXPOSICIÓN DE FOTOGRAFÍAS EN ORIO



Nahiz eta gure belarrietara denak ez heldu, Gipuzkoan entomologiarekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatzen dira. Oraingoan, lagun batek gonbidatu gintuen eta Orioko Salatxo tabernan 2011ko azaroan egin zen argazki erakusketan izan ginen.

Koro Arratibelek, gaur egun Orion bizi den argazkigile donostiarrak, asko gustatu zitzaigun intsektu argazki bilduma bat aurkeztu zuen. Argazki guztiak herri inguruan ateratakoak dira.

Publicamos esta noticia como muestra de las distintas actividades relacionadas con la entomología que se realizan en Gipuzkoa, muchas de ellas no llegan a nuestro conocimiento, pero esta vez, un amigo común nos invitó a ver esta muestra fotográfica que se expuso en noviembre de 2011 en el bar Salatxo de Orio.

La fotógrafa Koro Arratibel, donostiarra de nacimiento y afincada en Orio, nos sorprendió agradablemente con una selección de bonitas imágenes de insectos realizadas por los alrededores del municipio costero.





Elkarteko informazioa

Información de la Asociación

LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA

2011.ean zehar, monografia gutxi batzuk donazioz jasotzeaz gain, aldizkako argitalpenen 219 ale jaso dira trukez, harpidetzaz edo donazioz. Guztira, ehun bat aldizkariko 2229 ale daude liburutegian.

Durante 2011, además de unas pocas donaciones de monografías, se han recibido 219 ejemplares de publicaciones periódicas por intercambio, suscripción o donación. La biblioteca consta así de un total de 2229 números de un centenar de revistas.



BILDUMA / COLECCIÓN

Erakusketa ibiltarirako prestatutako materialaz gain, 2011. urtean "Gipuzkoako Entomologia Elkarteko Bilduma" antolatzen hasi gara.

Kaja entomologiko guztiei errotuluak jarri eta Ordena, Familia, etab. kontuan hartuta ordenatu ondoren, horretarako prestatutako apaletan kokatuta gelditzen dira.

Aparte del material preparado para la exposición itinerante, este año 2011 hemos comenzado a organizar la "Colección de la Asociación Gipuzkoana de Entomología".

Se están rotulando y ordenando, en unas estanterías adecuadas, todas las cajas entomológicas por Ordenes, Familias, etc.



GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Conistra vaccinii

(Linnaeus, 1761)

Neurria: 28-36 mm.

Bi belaunaldi dituzte, bat otsailetik apirilera eta bestea urritik azarora. Nahiz eta parkeetan eta lorategietan ikusi, hostogalkorrak dituzte gogoken. Dituzten marrazkiak kontuan hartuz gero, bi forma daude.

Beldarrak urki eta haritz hostoak jenez elikatzeko dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 28-36 mm.

Los adultos vuelan en dos generaciones, de febrero a abril y entre octubre-noviembre. Frecuentan bosques caducifolios e incluso parques y jardines. Por la forma de los dibujos existen dos formas.

Las orugas se alimentan de hojas de abedules y robles.

Es escaso en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cosmia trapezina

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 25-33 mm.

Uztailetik irailera aurki daitezke belaunaldi bakar batean. Nahastezinak dira, erdian puntu beltza duen trapezio itxurako marrazkia baitute. Zumarrak ugari diren erriberetako basoak oso gustuko dituzten arren lorategietan ere aurki daitezke.

Beldarrak, batik bat, haritzek eta zumarrez elikatzen dira.

Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 25-33 mm.

Vuelan en una sola generación de julio a septiembre. Se distingue fácilmente por el dibujo en forma de trapecio con un punto negro en el centro. Pueden verse en bosques ribereños con abundancia de ulmáceas e incluso en jardines.

Las orugas se alimentan sobre todo de robles y olmos.

Es escaso en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 28-32 mm.

Helduak ekainaren bukaeratik abuztu erdialde-
ra aurki daitezke, belaunaldi bakar batean eta
soilik ale gutxi batzuk. Larre hezeak, basoak
eta ur-lasterrek dituzte gogokoen.

Larbak berdeak dira eta urki, ezki eta haritz
hostoak janez elikatzen dira. Lurrean krisali-
datzen dira, hostoetan bilduta.

Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cosmia pyralina

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Tamaño: 28-32 mm.

Los adultos vuelan en una sola generación
muy escasa de finales de junio a mediados de
agosto. Frecuentan prados húmedos, bosques
y cursos de agua.

Las larvas, de color verde, se alimentan de
olmos, tilos y robles. Crisalidan en el suelo,
enrollados con hojas.

Es muy escaso en Gipuzkoa.



Neurria: 27-34 mm.

Belaunaldi bakar bat dute, uztailetik irailera.
Hasi basotik eta irietaraino oso biotopo des-
berdinetan aurki daitezke. Erraz bereizten dira
likenarekin duten mimetismoa dela eta.
Disekatuta daudenak kolorea galtzen joaten
dira.

Beldarrek likena eta goroldioa jaten dute.

Gipuzkoan urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Cryphia muralis

(Forster, 1771)

Tamaño: 27-34 mm.

Los imagos vuelan en una sola generación
desde julio a septiembre. Frecuentan biotopos
muy diversos, desde bosques hasta ciudades.
Son fáciles de identificar por su mimetismo con
el liquen. Los ejemplares disecados tienden a
palidecer.

Las orugas se alimentan de líquenes y musgo.

Es escaso en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

DERMESTIDAE

Anthrenus verbasci

(Linnaeus, 1767)

Neurria: 1,7-3,5 mm.

Belaunaldi bat dute urteko. Hala ere, garatze-ko baldintza egokiak aurkitzen ez badituzte, fase horrek 2 edo 3 urte iraun dezake.

Helduak lore gainean aurki daitezke nektarra eta polena janez.

Larbak iletuak dira, eta bihitegietan, hau da, ale biltegietan, alfonbretan, ehunetan eta museoko bildumetan eragin ditzakete kalteak.

Gipuzkoan oso ugaria da.



Tamaina: 1,7-3,5 mm.

Tiene una generación al año, aunque en condiciones desfavorables su desarrollo puede durar 2 ó 3 años.

Los adultos se pueden encontrar sobre las flores, alimentándose de néctar y polen.

Las larvas son peludas y pueden causar daños en semillas almacenadas, alfombras, telas y colecciones de museos.

Es muy abundante en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

DERMESTIDAE

Anthrenus pimpinellae

(Fabricius, 1775)

Neurria: 2-4,5 mm.

Belaunaldi bakar bat dute. Emeak arrak baino handixeagoak dira. Gorputza ezkatatzen estalia dute, horietako batzuk argiak eta besteak ilunak. Etxe barruan aurki ditzakegu eta kanpoan, lore gainean.

Larbak iletuak dira eta animalia lehorteak edota disekatuak elikatzen dira.

Gipuzkoan oso ugaria da.



Tamaina: 2-4,5 mm.

Tiene una generación al año.

Las hembras son algo más grandes que los machos. Tienen el cuerpo cubierto de escamas claras y oscuras. Podemos encontrar adultos dentro de las casas y en el exterior sobre las flores.

Las larvas son peludas y se alimentan de productos de origen animal secos.

Es muy abundante en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 4,5-5,5 mm.

Belaunaldi bat dute urteko, baina baldintza ez egokietan hainbat urte iraun dezake garapenak.

Helduak udazkenean aurki daitezke loreetako polena eta nektarra janez.

Larbak iletsuak dira eta ehunetan, alfonbretan, etab., sor ditzakete kalteak.

Gipuzkoan urria da.

COLEOPTERA

DERMESTIDAE

Attagenus pantherinus

(Ahrens, 1814)

Tamaño: 4,5-5,5 mm.

Tiene una generación al año, aunque en condiciones desfavorables su desarrollo puede durar varios años.

Los adultos se encuentran en otoño sobre flores alimentándose de néctar y polen.

Las larvas son peludas y pueden causar daños en textiles, alfombras, etc.

Es escaso en Gipuzkoa.



Tamaño: 3,5-6 mm.

Larbak udan agertzen dira eta gorputza ilez estalia dute. Animalia disekatuetan sor ditzakete kalteak, adibidez bildumetan edota intsektu arrastoak dauden edozein tokitan: txori habietan, armiarma-sareetan, etab.

Mundu osoan hedatua dago.

Gipuzkoan urria da.

COLEOPTERA

DERMESTIDAE

Attagenus pellio

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 3,5-6 mm.

Las larvas aparecen en verano y tienen el cuerpo cubierto de pelos largos. Pueden causar daños en productos de origen animal secos, en colecciones y en lugares donde haya restos de insectos como en nidos de pájaros, telarañas, etc.

Está distribuido por todo el mundo.

Es escaso en Gipuzkoa.

Artropodoak eta posta-seiluak (III)

Los Artrópodos y los sellos de correos (III)

Jorge Luis Agoiz Bustamante

Tximeletak (Lepidopteroak) munduko filatelian gehien agertu diren intsektuak dira. Herrialde guztietan zigilu askotako modelo izan dira, jendeak gustukoak dituelako eta kolore ikusgarriak dituztelako.

Badaude kolore ederreko espezie tropikalak, hurrengo ataletan ezagutuko ditugunak. Ia denak eguneko tximeletak dira (ropalozeroak); aldiz, gaueko tximeletek edo sitsek kolore hilak izaten dituzte oso salbuespen gutxirekin. Gaur aurkezten dizueguna Sueziako 4ko serie bat da, non ikus daitezkeen Papilionidae, Nymphalidae eta Pieridae familiako hainbat ale, denak gure inguruan aurki daitezkeenak.

Papilio machaon: Papilionido dotore bat, ziur aski munduko filatelian gehien agertzen dena eta gure inguruan ikus dezakeguna (Heteropterus, 25). *Nymphalis antiopa* eta *Euphydryas maturna*: Bi ninfalido, bigarrena iparraldeko espezie bat da, Euskal Herrian espezie berdintsu bat daukagu (*Euphydryas aurinia*, Heteropterus, 25).

Colias palaeno: Europa iparraldeko pieridoa. Hemen antzeko espezie bat ikus dezakegu *Colias crocea* hain zuzen ere (Heteropterus, 25).

Las mariposas (Lepidópteros), son los insectos más representados en la filatelia mundial. Sus bellos colores, y su popularidad, las han convertido en modelo para gran cantidad de sellos de todos los países.


Hay especies tropicales de gran tamaño y magníficos colores, en próximas entregas conoceremos algunas. Son, en su mayoría, mariposas diurnas (ropalóceros); los lepidópteros nocturnos, o polillas, tienen coloraciones de tonos apagados con pocas excepciones.

Aquí presentamos una serie de Suecia con cuatro valores, donde vemos ejemplares de las familias Papilionidae, Nymphalidae y Pieridae, todas ellas representadas en nuestra tierra.

Papilio machaon: Un bello papiliónido, posiblemente el más representado en la filatelia mundial y que podemos admirar en nuestros lares (Heteropterus, 25).

Nymphalis antiopa y *Euphydryas maturna*: Dos ninfalidos, el segundo de ellos es una especie boreal, en el País Vasco vuela una especie similar (*Euphydryas aurinia*, Heteropterus, 25).

Colias palaeno: Un piérido del norte de Europa, aquí podemos ver especies parecidas como *Colias crocea* (Heteropterus, 25).



Esoporen Fabula batzuk

Algunas Fábulas de Esopo



E
s
o
p
o

Idazle grekoa. Kristo aurreko VI. mendekoa.
Escritor griego. Vivió alrededor del año 600 antes de Cristo.

Txitxarra eta inurria

Ustez Esopok egindako alegiatako bat da, gero Jean de la Fontainek eta Felix Maria Samaniegok berregindakoa, hain zuzen ere. Txitxar bat agertzen da bertan, zeina uda osoa abesten eman ondoren, negua heldutakoan janaririk gabe aurkitzen dena, egoera larri horretan, bizilagun duen inurri langilearengana jotzen du janari eske. Azken hori txitxarraz errukitu eta arroz ale batzuk oparitu dizkio, baina zuhurra izateko aholkua eman dio: **“Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna”**.

La cigarra y la hormiga

La cigarra y la hormiga es una de las fábulas atribuidas a Esopo y recreada por Jean de la Fontaine y Félix María Samaniego. En ella aparece una cigarra que después de pasar el verano cantando, al llegar el invierno se encuentra desprovista de alimento y acude a pedirlo prestado a su vecina la hormiga. La laboriosa hormiga se compadece de la cigarra, y le regala algunos granos de arroz, no sin antes advertirle que debe ser previsora, y que **“vale más prevenir que lamentar”**.



Arranoa eta kakalardoa

Bazebilen behin erbi bat arrano batengandik ihesi. Hori ezinezkoa zela ikusirik, kakalardo bati eskatu zion, arren lagun ziezaien.

Kakalardoak arranoa laguna zuenez, mesedez horrelakorik ez egiteko eskatu zion, baina arranoak kakalardo hain ahula eta xumea zela ikusirik, erbia bere aurrean irentsi zuen.

Orduz geroztik, kakalardoak mendeku bila zebilen, eta halako batean konturatu zen arranoak non jarri zituen bere arrautzak txitatxoak ateratzeko. Hegan bertaraino joan eta bueltaka-bueltaka hor bota zituen arrautza guztiak habiatik lurrera. Arranoak hori ikusirik, habia egiteko beste kokaleku bat aurkitu zuen, baina han ere gauza bera gertatu zitzaion. Hori ikusita, azkenean Zeusi laguntza eskatzea otu zitzaion, bere txitatxoak jaiotzeko modu bakarra izango zelakoan.

Zeusek bere magalean arrautzak jartzeko eskaintza egin zion, baina kakalardoak erne zegoenez, pilotatxo bat egin zuen lurrez, hegan eraman eta Zeusen magalean bota zuen. Zeus altxa eta mahaleko zakarra astindu zuenean, arranoaren arrautzak erori eta hautsi egin ziren. Geroztik, arranoek ez dute arrautzarik jartzen kakalardoek hegan egiten duten garaian.

“Inoiz ez ezazu mespretxatu baliogabea dirudien ezer, ez baitago lehenxeago edo geroxeago kaltetu ez zaitzakeen izakirik”.



El águila y el escarabajo

Estaba una liebre siendo perseguida por un águila, y viéndose perdida pidió ayuda a un escarabajo, suplicándole que le salvara.

Le pidió el escarabajo al águila que perdonara a su amiga. Pero el águila, despreciando la insignificancia del escarabajo, devoró a la liebre en su presencia.

Desde entonces, buscando vengarse, el escarabajo observaba los lugares donde el águila ponía sus huevos, y haciéndolos rodar, los tiraba a tierra. Viéndose el águila echada del lugar a donde quiera que fuera, recurrió a Zeus pidiéndole un lugar seguro para depositar sus futuros pequeñuelos.

Le ofreció Zeus colocarlos en su regazo, pero el escarabajo, viendo la táctica escapatoria, hizo una bolita de barro, voló y la dejó caer sobre el regazo de Zeus. Se levantó entonces Zeus para sacudirse aquella suciedad, y tiró por tierra los huevos sin darse cuenta. Por eso desde entonces, las águilas no ponen huevos en la época en que salen a volar los escarabajos.

“Nunca desprecies lo que parece insignificante, pues no hay ser tan débil que no pueda alcanzarte”.

Intsektuak musikan

Los insectos en la música (6)

<http://intsektuakmusikan.blogspot.com/>

Faustino Uranga



1930ean jaio zen organo-jole eta konpositore frantse-
sa, Pariskeko Saint Eustache elizako organoarekin
egindako inprobisatzeak zirela eta egin zen ezagun.
Musika garaikidetzat jo dezakegu elizako organoa joz
bat-batean sortzen duena.


Jean Guillou Biloulou Safari
1972 Ansonia

Organista y compositor francés nacido en 1930 famo-
so por sus improvisaciones con el órgano de la iglesia
de Saint Eustache en Paris. Se trata de música impro-
visada de órgano de iglesia pudiéndose clasificar den-
tro de la música contemporánea.

Musika garaikideko 60 disko baino gehiago argitaratu
dituen kontratenore, gitarraista, pianista eta musikologo
belgikarra. Bi abesti ditu single honek, *Hirose* eta *Noli
me Tangere*.

Wim Mertens Hirose
1986 Les Disques du Crépuscule


Poco que añadir a este cantante contratenor, guitarris-
ta, pianista y musicólogo belga de la música contem-
poránea que tiene más de 60 discos editados. Este es
un single con dos temas, *Hirose* y *Noli me Tangere*.



Rock alternatiboa egiten zuen talde ingelesa. 80ko erdial-
dean sortutako banda honek hiru album argitaratu zituen
hamarkada horren bukaeran eta 90. hamarkada hasieran.
Taldek abeslariak, Harriet Wheelerek, eta David Gavurin
gitarra-joleak unibertsitatean ezagutu zuten elkar.

The Sundays Summertime
1997 Parlophone

Fueron un grupo inglés de rock alternativo. La banda,
formada a mediados de los 80, editó tres álbumes a
finales de los 80 e inicios de los 90. La cantante del
grupo, Harriet Wheeler, y el guitarrista David Gavurin
se conocieron en la universidad.



Instrumentu anitz jotzen dituen abeslari ingeles honek new age eta musika elektronikoko 16 album baino gehiago argitaratu ditu, horretarako goitizen desberdina erabiliz. BBC eta Discovery Chanel bezalako telebista kateetan ere kolaboratu izan du.


Paul Lawler Year Zero
1997 Champagne Lake Productions

Cantante y multiinstrumentista inglés que ha publicado más de 16 álbumes de new age y música electrónica bajo diferentes seudónimos. También ha colaborado en cadenas de TV como BBC y Discovery Channel.

Lanny Meyersek eta Rick Kunisek osatzen duten funk-jazz-souleko talde amerikarra. Bob Catok diseinaturako portada dotorea.

Guillotine Guillotine
1971 Ampex Records

Grupo americano de funk-jazz-soul formado por Lanny Meyers y Rick Kunis. Preciosa portada diseñada por Bob Cato.



Hainbat egilek Beatleseki eskainitako lp brasildar baten portada. Bildumazaleentzako edizioa.

VV.AA. Songs Made Famous by The Beatles
1970 RCA

Portada de un lp brasileño tributo a los Beatles, interpretado por autores diversos. Es una edición de coleccionista.

Danborra, perkusioa eta ahotsa Airtto Moreirak jartzen dituen arren, azpimarratzekoak dira baita ere Chick Corea eta Herbie Hancock teklatuan. Izenburuan ikus daitekeen moduan, jazz estiloko musika egiten dute.

Airtto Moreira & The Gods of Jazz Killer Bees
1993 B&W Records

Aparte de Airtto Moreira en los tambores, percusiones y voces hay que destacar entre otros a Chick Corea y Herbie Hancock a los teclados. Como señala el título el estilo es jazzístico.





Abeslari frantses honek, bere haur ahots goxoa elektronikoki moldatuta eskaintzen du emanaldietan. Oso instrumentu desberdinak erabiltzen ditu, esaterako harpa zelta edo 1952. urtean musika garaikidea egiteko sortutako Baschet kristala.

Emilie Simon Emilie Simon
2003

En sus representaciones esta cantante francesa suele manipular electrónicamente su voz edulcorada e infantil. También utiliza instrumentos tan diversos como el arpa celta o el cristal Baschet un instrumento de música contemporánea inventado en 1952.

Milanen jaio eta instrumentu anitz jotzen dituen artista italiarra. Jazza Zaparen humore ukituekin nahasten duena. 2004. urtean BMGk cd-an berrargitaratua.

Roberto Colombo Sfogatevi Bestie
2007 Ultima Spiaggia

Artista multiinstrumentista italiano nacido en Milán que mezcla el jazz con toques de humor de Zappa. Reeditado en cd por BMG en 2004.



Quintorigo 1996. urtean John de Leok sortutako banda italiarra da. Sortzaileak 2005. urtean utzi zuen taldea. Musika aldakorra egiten dute, musika esperimental, jazz, reggae, popa eta rocka.

Quintorigo English Garden
2011 Edel

Quintorigo es una banda italiana fundada en 1996 por John de Leo, quien dejó la banda en 2005. Su género varia entre música experimental, jazz, reggae, pop y rock.

Throwing Muses, indie rockean 90. hamarkadan itzal handiena zuen banda amerikarraren burua. Berak argitaratzen ditu bere lanak, bere izen propioa jarritz. 50 Foot Waverekin elkarlanean ere aritzen da.

Kristin Hersh Cats & Mice
2010

Líder de una de las bandas americanas más influyentes de los 90 en el indie rock, *Throwing Muses*. Artista que ha optado por autoeditar sus numerosas obras bajo su propio nombre. Colabora también con 50 Foot Wave.





Bush, Live edo *Foo Fighters* bezala, Estatu Batuetan, hain zuzen ere Georgian, 90. hamarkadan sortutako taldea. Rock kutsuko musika egiten dute eta post-grunge generoa lantzen duen talde garrantzitsuenetako bat da.

Collective Soul Dosage 1999

Es una banda de rock alternativo proveniente de Georgia, Estados Unidos, y una de las bandas denominadas post-grunge más importantes surgidas en los años 90, junto con otras como *Bush, Live* o *Foo Fighters*.

Christopher Holland dago izen honen pean, bestea beste, bere anaia bikia eta Lisa Covington dituelarik lagun. 60. eta 70. hamarkadetako kutsua duen Pop garaikidea.

Don Cherry_Orient 2002 Fruit Tree

Bajo este nombre se esconde Christopher Holland que se acompaña entre otros de su hermano gemelo y de Lisa Covington. Pop contemporáneo con reminiscencias de los 60 y 70.



Pete Rugolo, 50. eta 60. hamarkadako big band orkestra bateko moldatzaile, konpositore y noizean behingo piano-jolea. Portadan, koleoptero exotiko politak ikus daitezke.


Pete Rugolo Music for Hi-Fi Bugs 1956 Vocalion

Pete Rugolo, arreglista, compositor y pianista ocasional de una orquesta de big band de los años 50 y 60. Podemos apreciar unos bonitos coleópteros exóticos.

La Trulla de Bozesek jotzen duen XVI. mendeko musika klasiko errenazentista. 1998. urtean sortutako talde hau gazte jendez osaturik dago eta sona handia lortzen ari da.

La Trulla de Bozes Sevilla Circa 1560 2002 Passacaille

Música clásica renacentista del siglo XVI interpretada por La Trulla de Bozes, grupo de jóvenes intérpretes creado en 1998 y que se ha ganado ya una considerable reputación.



HEMEROTEKA

Una especie de saltamontes tiene los testículos más grandes de la naturaleza

Un estudio realizado por científicos de la Universidad inglesa de Derby afirma que los saltamontes *Platycleis affinis* son la especie animal con los testículos más grandes de toda la naturaleza, proporcionalmente a su peso, dado que los órganos sexuales de estos animales conforman el 14% de su peso corporal. Si los hombres tuvieran una proporción similar a la de estos insectos, cada testículo pesaría cinco kilos. El informe también

destaca que la segunda especie que tiene esta parte de su cuerpo más grande en proporción a su tamaño es el insecto *Drosophila bifurca*, un tipo de mosca de fruta cuyas gónadas llegan a representar el 10,6% de su peso. Además el tamaño está relacionado con la conducta promiscua de cada especie, es decir, a mayor tamaño, mayor número de copulaciones y parejas. Los testículos tienen tendencia a ser más voluminosos en las especies cuyas hembras poseen numerosas parejas. Ello permite al macho que produce más esperma tener una ventaja sobre sus rivales.

Noticias de Gipuzkoa 12/11/2010

Hallado en Zaragoza un eslabón entre los "gusanos" primitivos y los artrópodos

Un primitivo y raro fósil de hace 520 millones de años fue recuperado en el yacimiento cámbrico de Murero (Zaragoza) que arroja luz sobre la evolución de los gusanos primitivos dotados de patas, informó la Universidad de Zaragoza, que participó en este hallazgo. Este aporta información sobre el problema de la evolución y filogenia del ancestral grupo de los xenúcidos, que son los gusanos primitivos dotados de patas, y

que se encuentran en la raíz del origen de los artrópodos, el grupo animal más diverso que existe en la biosfera actual. El fósil representa un género desconocido que ha recibido el nombre de *Mureropodia apae* en alusión a la localidad del hallazgo y a las numerosas patas que tiene, según sus descubridores José Antonio Gámez, Eladio Liñán y Andrey Zhuravlev, que lo han publicado como un capítulo del libro *Evolutionary Biology*. El único espécimen encontrado se exhibirá al público en el Museo Paleontológico de la Universidad de Zaragoza.

Noticias de Gipuzkoa 13/11/2011



kutxa



INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



Prest marigorriak psikologia ikasketak burutu ditu eta irudi anbiguoko hiru adibide ekarri dizkigu. Aurkeztu dizkigun marrazkietan ezin dira bi irudiak batera ikusi, hain zuzen ere, hori baita duten berezitasuna.

A irudia, 1930. urtean E. G. Boring psikologo iparramerikarrak sortua da. Zer ikusten duzu lehenengo, emakume zaharra ala gaztea?

B irudia, 1900. urtean sortu zuen Joseph Jastrow psikologoak. Honetan ahatea edo untxia ikusten duzu lehenengo?


Eta **C** irudian, eskimala edo indiarra?

La mariquita Prest ha estudiado la carrera de psicología y nos ha traído unos ejemplos de lo que llaman figuras ambiguas. Tienen la particularidad que no se pueden ver las dos figuras a la vez.


En la figura **A**, creada por el psicólogo norteamericano E. G. Boring en 1930 ¿Qué ves primero, la vieja o la joven?

En la **B**, creada por el psicólogo Joseph Jastrow en 1900 ¿el pato o el conejo?

Y en la **C**, ¿el esquimal o el indio?



Aurreko zenbakiko erantzuna / Respuesta al número anterior:







Científicos de la
 Universidad
 de Georgetown
 han demostrado
 que una mariposa
 recuerda cosas de sus últimas
 fases como oruga.



**EL ESCORPIÓN
 MAS VENENOSO
 ES EL
 ESCORPIÓN
 DORADO
 ISRAELÍ,
 LEIURUS
 QUINQUESTRIATUS.**



MUNDUKO
 ARKITEKTURIK
 ONENAK
 AUSTRALIAKO
 TERMITAK
 DIRA,
 6 METROKO
 ALTUERA ETA
 HAINBAT METROKO
 ZABALERA DUTEN
 TERMITATEGIAK
 ERAIKITZEN
 BAITITUZTE.



mendiz-mendi
paisajes culturales

mendez-mende
naturaleza con historia

 **GIPUZKOA**
zurekin, aurrera ➤